


# Hitzatzea

## Euskal Herriko Ipuin-kontalarien Elkartea: Kontalari

Pello Añorga eta Jose Mari Carrere



### Abiapuntua

Urte batzuk badira Koldo Amestoy 80. hamarkadaren hasieran ipuinak kontatzen hasi zenetik. Geroztik, etengabe, sortzen joan dira ipuin-kontalari berriak. Esaterako, 80ko hamarkadaren erditik aurrera, agertu ziren: Pello Añorga, Virginia Imaz (Oihulari Clown) eta Antton Irusta; 1990ko hamarkadan, berriz: Joxe Mari Carrere, Iñaki Carretero, Aitor Txarterina, Apika taldea, Kontu Kontari taldea, Kandelen Argipean taldea, Itziar Zubizarreta, Doro Zorbaran, Rai Bueno, Rosa María Martínez, Itziar Rekalde eta Ixabel Agirresarobe; 2000ko hamarkadan, beste honakoak: Maite Franco, Kontu Kantoi taldea, Ixabel Millet, Miren Camison, Lur Korta, Lupe Lekuona, Joseba Ramirez, Aizkoa Olabarrieta, Xan Errotabehere, Josu Jimenez, Txema Regalado, Ana Meabe, Egoitz Lasa, Mikel Sominona, eta abar.



Urte hauetan denetan, esan daiteke bakoitzak egin duela bere bidea, bere kasa, eta bakarrik. Horregatik, ez da harritzekoa, gutako askok gehiago ikustea elkar Euskal Herritik kanpo, eta errepikatzea elkarri honako leloa: areago ezagutu behar genuela elkar, geure arazoak partekatu, elkarrekin zerbait antolatu, geure profesioaren duintasuna errebendikatu, eta abar. Gauzak horrela, 2006. urtean elkartu ginen, elkartu ere, Getxon, Euskal Herriko kontalarion Lehen Topaketetan. Hantxe erabaki genuen, erabaki ere, urtean behin elkartzea, eta Euskal Herriko kontalarion festa eguna antolatzea.

**Euskal Herriko kontalarion festa eguna:  
BAZEN BEHIN**

Getxoren topaketaz geroztik, esan beharra dago, urterik urte antolatu izan dugula geure festa eguna, zeina *BAZEN BEHIN* deritzan. Hona orain arte antolatutako lekuak: *Bazen behin 2007*: Aramaion; *Bazen behin 2008*: Pasaia Donibanen; eta *Bazen behin 2009*: Etxalarren.

Kontalarion festa egunaren helburu nagusienak bi lirateke: alde batetik, Euskal Herriko kontalaririk elkartzea; eta bestetik, geure burua publikoki ezagutaraztea hobekien dakiguna egiten, hots,

ipuinak kontatzen. Kontalaritzaren jarduna gero eta gehiago zabaldu denez, batez ere liburutegi eta eskoletan, logikoa da kontalariak ugaltzea. Halere, horrek anabasa ikaragarria sortzen duenez, kontalarion festa egunak aukera ematen digu elkar ezagutzeaz gain, geure ofizioaren gaineko kezka eta arazoak partekatzeko, norberaren ibilbideak ezagutarazteko... eta batez ere geure lana sozializatzeko. Izan ere, ipuinak kontatzeko hain estilo eta forma ezberdinak ditugunez, bada, festa egunaren bitartez erakutsi nahi dugu ipuin-kontalaritzaren esparruan dagoen ikuspegi aniztasuna, hots, estiloak, ereduak, proposamenak eta aukera ezberdinak. Bidenabar, geure festa eguna izanik, frogatu nahi dugu geure aldarrikapena ez dagoela kontrajarrita geure irudimenarekin eta ondo pasatzearekin.

**Ahozko narrazioaren aldeko agiria**

Geure festa eguna antolatzeaz gain, kontalariok ere zoria izan genuen antolatzekeko Estatuko mailako Kontalarion IV. Topaketak, 2008an, Hondarribian. Hain zuzen, topaketa haien eraginpean, esan beharra dago legalki osatu genuela geure elkartea, eta izena ere ipini geniola Euskal Herriko Ipuin kontalarion Elkarteari: KONTALARIAK. Elkartea

osatu ez ezik, agiri bat ere plazaratzea lortu genuen honoko izenburuz: AHOZKO NARRAZIOAREN ALDEKO AGIRIA. Zoritxarrez, agiriak ez zuen eduki behar hainbesteko hedapena, eta lerro hauek probestu nahi dugu berriro ere kanporatzeko. Hona agiriaren edukia:

*“Hondarribian 2008. urteko Urtarrilaren 25, 26 eta 27an antolatutako IV Kontalarien Topaketaren arduraduna izan den Kontalariak (Euskal Herriko Kontalarien Elkarteak) azaltzen du:*

Ahozko narrazioa arte bat da. Ohartzen gara baloreetan hezten duela, terapeutikoa izan daitekeela, komunitatea trinkotu dezakeela eta irakurtzera bultzatu ere. Baina guztiaren gaitetik, ahazko narrazioa hitzaren artea da eta duen lehenengo helburua gozamina bultzatzea da, komunikazio eta harreman inguru batean.

Ahozko narrazioa denboraz gain irauten duen artea da, orain eta etorkizunean praktikatu nahi duguna, iraganeko kontalarien askatasun eta maitasun berdinarekin. Askatasun hau erabili eta defendatu nahi dugu gure arteari, gure publikoari,

norberaren erreperitorioari eta kultur aniztasunari dagozkien errespetuarekin.

Kontalariok gure erreperitorioko ipuinen “norberaren bertsioak” ekoizteko eskubidea eta konpromisoa aldarrikatzen dugu.

Kontalariok gure burua ikusten dugu berezko estiloarekin istorio egiazkoak, fikziozkoak edo sinbolikoak kontatzea helburua duten pertsonak bezala; erreperitorio originala sortzen dutenak, norberaren bilaketaren erakusle; jendearen aurrean bere izenarekin mintzo eta aurkezten direnak eta jardun hau, arte gisa bezala, ofizio moduan ikusten dutenak.

Komunikazio ekintza den aldetik, ahazko narrazioak entzuketara egokirako baldintzak behar ditu.

Kontalariok ofizioaren duintasuna bultzatuko dituen baldintza egokiak lortzeko ahaleginak egingo ditugula hitz ematen dugu, kalitatea ziurtatzeko bezala helburu hori lortzeko ahalbidetuko dituzten hizkuntzaren eguneratze eta aniztasuna garatuz.

Hondarribian 2008ko Urtarrilaren 27an”

## Epe laburreko erronka batzuk

### 1. Agiri bat kanporatzea antolatzaileei begira, ipuinak kontatzeko gutxieneko baldintzekin.

Ipuin-kontakteta saioetan, oro har, eta batik bat haurrentzat antolatzen direnetan, konturatzen ari gara gutxieneko baldintza batzuk finkatzea beharrezkoa dela, bestela, ipuin-kontaktetaren mesederako baino kalterako izango baita. Askotan ez gara konturatzen, ipuin-kontaktetarako bere beharrezkoak dituela, alderatuz gero kale-animazioarekin, pailazo emanaldiekin, eta abarrekin. Oso desberdina den bezala antolatzea piano-emanaldia, edota magia ikuskizuna, halaxe da desberdina antolatzea ipuin-kontakteta saioa; zeren, ipuin-kontakteta saioa, salbuespenak salbues-

pen, gehiago baita entzunkizun, ikuskizun baino; eta entzunkizun guztiak bezala, beharrezkoa da bermatzea atentzioa, arreta, isiltasuna... Horregatik, hain zuzen, aspalditik gabiltza kontalariok adierazten antolatzaileei komenigarria litzatekeela gutxieneko puntuak adostea kontalariokin, hobeto antola daitezten ipuin-kontaktetarako, batez ere haurrentzat direnean, ipuin-kontalaritzaren duintasunerako.

Zeren ipuinak kontatzea arte bat baita, eta gure ofizioan duintasuna bermatu nahi badugu, alderdi batzuk ere zaindu beharko ditugu denon artean, ezinbestean. Hona, adibiderako, puntu batzuk:



1. Komenigarria ikusten dugu kontalariokin hitz egitea, kontaketa hasi aurretik; ipuin-kontaketa bakoitzak beharkizun desberdinak dituelako.

2. Isiltasuna bermatzea garrantzitsua dela deritzogu ipuin-saioetan.

3. Arbuiatzen dugu litxarreriekin joatea haurrak ipuin-saioetara, zinemara joango balira bezala, arreta galarazten dutelako.

4. Areago biltzea eta zaintzea ipuin-kontaketaren gunea, entzulea erosoago senti dadin.

5. Haurrentzako ipuin-kontaketa saio batean gurasorik baldin badago, egon dadila haurrak bezala entzuten. Izan ere, askotan, guraso asko eta asko entzuten egon beharrean, euren haurrak kontrolatzen egoten baitira; edota hizketan batera errespeturik gabe; edota telefonoz hitz egiten, lotsagabe.

6. Komenigarria da haurren adina errespetatzea, baldin eta aurretik finkatu bada egitarauan

7. Behin kontaketa hasiz gero, komenigarria da haurrak bertan egotea lasai, eta ez ibiltzea kanpora eta barrura, besteei molestatzen.

Puntuak puntu, oraindik behar bezala taxuturik gabe ditugunez, ezin gehiago agertu hemen. Halere, aski izan bitez kontura zaitezten ipuin-kontaketa saio batean sortzen diren astrapaladak eta kalapitak.

## 2. Elkartearen helburuak finkatzea

Elkarte guztiek bezala, gure KONTALARIAK Elkartearen eginkizunak zeintzuk diren zehazten jakin beharko dugu epe laburrean, eta zehazten baita ere gure partaidetzaren nondik norakoa. Jardun zehatz baten gainean aritzen garenez (ahozko narrazioa, alegia), beronen ikerketa zein promoziorako bideak jarri beharko ditugu abiadan, eta, batez ere, honoko lau puntuak garatu:

- Lehenik, ipuin-kontalaritza jardunaren nondik norakoak ezagutarazi (arestian aipatu bezala,

ezjakintasun handia baitago nonahi). Ezagutza horrek, gure ustez, ofizio beraren duintasunerako bideak finka ditzake.

- Bigarren, eta elkargune garen aldetik, elkar-lana sustatu, guztion iritziak eta proposamenak aintzat hartuta.



- Hirugarren, interesgarria ikusten dugu oso, ahozkotasanaren altxorra biltzeari zein ezagutarazteari.

- Azkenik, puntu hauetaz gain, elkarteko kide izateko gutxieneko baldintzak finkatu beharko ditugu. Badakigu zaila dela zehaztea nor den ipuin-kontalari eta nor ez; baina adostasuna lortu beharko dugu. Bide batez, zuzeneko harremanak eta elkarlanak bideratu beharko ditugu, batik bat ipuin-kontalaritzaren gainean lan baliagarriak eta interesgarriak egiten dutenekin.

### Azken hitzak

Mendetan barrena iraun du ipuin-kontalaritzak, eta iraungo du etorkizunean ere. Iraganean, gizonek zein emakumeek kontakizunak entzuteko beharra izan zuten bezala, geroaldian ere izango dutelako. Kontakizunak, jada, igaro dira sutondotik kalera, artazuriketarik tabernetara, lagunartetik antzokietara, eta abarretara; tinko dirauten seinale. Egun, proposamen artistikoen barruan dugu ipuin-kontalaritza, eta horrek eskatzen du balore kultural zein artistiko moduzat aintzat hartzea. Halakorik gutxiesteak edo bigarren

mailakotzat hartzeak, kultur esparrua aberastea baino, pobretzea ekarriko du. Horretan guztiok dugu gure betebeharra: kontalariok geure proposamen sortzaileetan aurrera eginez, ikerlariak ikertzen saiatuz, antolatzaileek baldintza duinetan lan egiten ahaleginduz, hedabideek ipuin-kontalaritzaz informatuz... zeren ipuinekin altxor handia baitute gordeta euren errailetan, eta, besteak beste, etorkizuna eraikitzeko balio dutelako (luketelako), euren bizi indar ahaltso lagun.



Asociación de **C**uentacuentos del País **V**asco

*En este artículo se comentan los inicios de los cuentacuentos vascos y vascas y como poco a poco el grupo ha ido aumentando. Se cuenta como se reunieron en Getxo en el 2006 para realizar las primeras jornadas de cuentacuentos, donde surgió la idea de crear la asociación de cuentacuentos del País Vasco y se especifican cuáles son sus objetivos.*

*En las jornadas de 2008 redactaron un manifiesto con la intención de darse a conocer y definir la asociación.*

*En el artículo se desarrollan algunos de los retos que se plantean para el futuro próximo.*

Storytelling Association of the **B**asque **C**ountry

*This article deals with the beginnings of Basque storytellers and how the group has gradually been growing. It tells how they got together in Getxo in 2006 to hold the first storytelling conference, which gave birth to the idea of setting up the Storytelling Association of the Basque Country; it also specifies its aims.*

*During the conference held in 2008, a manifesto was drawn up with the aim of making the association known and defining it.*

*The article develops some of the challenges that are being faced in the near future.*

SARAH J. TURTLE



**BEHINOLA** aldizkariaren harpidetza orria.

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bete ondorengo fitxa.

Izen-deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria: .....

Posta-kodea:.....


**BEHINOLA** aldizkariaren urteko kuota (20 €). 2 zenbaki urtean.

Euskadiko Kutxaren honako kontu-korrontean sartu:

3035 0242 68 242 0 00247 1

eta bidali fitxa ordainketa-agiriarekin batera Galtzagorri elkartera.
















**Galtzagorri elkartea. Zectoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943 471 487**




# Behinola

Galtzagorri Elkarte

Haur eta Gazte Literatura Aldizkaria





## Egin zaitez Galtzagorri Elkarteko bazkide

I. Jarraian aurkezten dugun fitxa bete eta ordainketa-agiriarekin batera, gure helbidera bidali:

### Galtzagorri Elkartea

Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943471487

behinola@galtzagorri.org — www.galtzagorri.org

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....Posta-kodea:.....

Telefonoa:.....faxa:.....

e-maila:.....

Ogjbidea:..... lantokia:.....

2. Urteko bazkide-kuotaren ordainketa egin (40 €)

Galtzagorri Elkartearen kontu-korrontean dirua sartuz:

### CAJA LABORAL – EUSKADIKO KUTXA

sukurtsala: Loyola 15 (20.014 Donostia)

kontu-zenbakia: 3035 0242 6 8 242 0 00247 1

Galtzagorri Elkarteko bazkide guztiak doan jasoko dituzte  
Elkartearen argitalpen guztiak.



## Behinola aldizkariaren

argitalpena 2010eko azaroan egin zen Iruñeko  
Ona Industria Gráfica inprimategian.

